

Eranskina I

BAKARRIK DAUDEN HAUR ETA NERABE MIGRATZAILEAK LEKUALDATZEKO HITZARMENA, KANARIETAKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN (GIZARTE ESKUBIDE, BERDINTASUN, ANIZTASUN ETA GAZTERIA SAILAREN BIDEZ) ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN (BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN ETA FORU ALDUNDIEN BIDEZ, ADINGABEAK BABESTEKO ERAKUNDE PUBLIKOAK DIRENEZ GERO) ARTEAN, MIGRAZIO ARRISKUKO EGOEREN ESPARRUAN.

PARTAIDEAK

I.– Kanarietako Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren izenean, Candelaria Delgado Toledo andrea, Gizarte Ongizatea, Berdintasuna, Gazteria, Haurrak eta Familietako sailburua, Kanarietako Gobernuaren sailburuak izendatzen dituen Presidentearen uztailaren 17ko 121/2019 Dekretuaren bidez emandako izendapenari jarraikiz.

Kanarietako Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari buruzko uztailaren 26ko 14/1990 Legearen 16.1 eta 29.1.k) artikuluetan, Kanarietako Gobernuaren Sailburutzen egoitzak eta egitura zentral eta periferikoa zehazten dituen abuztuaren 1eko 203/2019 Dekretuaren 4. artikuluan, Sailburutzen kopurua, izena eta eskumenak zehazten dituen Presidentearen uztailaren 16ko 119/2019 Dekretuaren 5. artikuluan, eta Giza Eskubide, Berdintasun, Aniztasun eta Gazteria Sailburutzaren Erregelamendu Organikoaren (apirilaren 16ko 43/2020 Dekretuaren bidez onartutakoaren) 1, 2, 5 eta 7. artikuluetan emandako eskumenen eta ahalmenen arabera esku hartzen du.

II.– Euskal Autonomia Erkidegoaren izenean, honako administrazio publiko hauek:

A) Eusko Jaurlaritza, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 104.1.b) artikulua pertsonak babesteko ematen dizkion koordinazio eskumenak betez, arlo honetan politika homogeneoa bermatzeko, Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan.

Eta, hura ordezkatzuz, Nerea Melgosa Vega andrea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua, Lehendakariaren otsailaren 13ko 6/2023 Dekretuaren bidez egindako izendapenari jarraikiz eta Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 25. artikulua ematen dizkion eskumenak baliatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren eginkizunak eta jardun arloak zehazten dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak 13. artikuluan eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako eginkizun eta jardun arloei lotuta.

B) Foru Aldundiak, adingabeak babesteko eskumena duten erakunde publikoak diren aldetik (aurrerantzean, erakunde publikoa edo erakunde publikoak, dagokionaren arabera), beren eskumenaren lurralde eremuan, eta, zehazki, babesgabe dauden haurrak eta nerabeak babesteko aurreikusitako jarduerak egiteko eskumenak baliatuz, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 104.2.a) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Eta, horiek ordezkatzuz.

B.1) Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz, Gorka Urtaran Agirre jauna, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua, 2023-2027 legegintzaldirako foru diputatuak izendatzen dituen Arabako diputatu nagusiaren



ekainaren 30eko 153/2023 Foru Dekretuaren bidez egindako izendapenari jarraikiz, eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretuak esleitzen dizkion ahalmenak baliatuz.

B.2) Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz, Amaia Antxustegi Ziarda andrea, Gizarte Ekintzako foru diputatua, 2023-2027 legegintzaldirako foru diputatuak izendatzen dituen Bizkaiko ahalduen nagusiaren uztailaren 6ko 170/2023 Foru Dekretuaren bidez egindako izendapenari jarraikiz, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren Erregelamendu Organikoa onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 22ko 135/2022 Foru Dekretuak esleitzen dizkion ahalmenak baliatuz.

B.3) Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz, Maite Peña López andrea, Zainketetako eta Gizarte Politiketako foru diputatua, foru diputatuak nahiz diputatu nagusiordeak izendatzeko, eta Diputatuen Kontseiluko idazkaria hautatzeko ekainaren 30eko 5/2023 Foru Dekretuaren bidez egindako izendapenari jarraikiz, eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urriaren 20ko 21/2020 Foru Dekretuak esleitzen dizkion eskumenak betez.

Goian aipatutako pertsona guztiek beren karguan dihardute, elkarri aitortzen diote agiri hau formalizatzekeo beharrezko legezko gaitasuna, eta, horren arabera, elkarrekin adostuta, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

I.- «Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea zati batean aldatzen dituen Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren» (aurrerantzean, ABJLO) 10.3 artikulua, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak emandako idazketan, ezartzen du Espainian dauden adingabe atzeritarrek eskubidea dutela hezkuntzarako, osasunlaguntzarako eta oinarritzko gizarte-zerbitzuetarako eta -prestazioetarako, espainiar adingabeen baldintza berberetan. Halaber, botere publikoen helburu gisa ezartzen du, politika publikoak diseinatzean eta egitean, adingabe horiek Espainiako gizartean erabat integratzea lortzea, Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzeritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan ezarritako baldintzetan.

II.- Bakarrik dauden eta autonomia-erkidegoetako erakunde publikoek hartzen dituzten haur eta nerabe migratzaileen etorrera areagotu egin da. Horregatik, askotan lurralde horiek kalteberatasun egoeran dauden haur eta nerabeei harrera egiteko eta arreta emateko duten gaitasuna gaintzen du, eta, aldi berean, haurrak eta nerabeak babesteko sistemak erantzun egokia eta koordinatua emateko zailtasunak biderkatzen ditu, betiere adingabearen interes gorenean oinarrituta.

III.- Espainiako Konstituzioaren 2. artikulua lurralde arteko elkartasunaren printzipioa finkatzen du.

IV.- Bestalde, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak administrazio publikoaren arteko barne harremanak arautzen ditu, eta jarduketa printzipio orokorrak eta subjektu publikoaren arteko harremanen teknikak zehazten ditu. Horrekin bat etorritik, legearen III. tituluak xedatzen du administrazioen arteko harremanak honako printzipio hauen arabera arautuko direla: elkarlana, lankidetzak, kudeaketaren efizientzia eta lurraldeen arteko elkartasuna, Konstituzioaren arabera.

V.- Autonomia-erkidegoetan sor daitezkeen migrazio arriskuei erantzuteko, migrazio arriskuak kudeatzeko eredu onartu zen, Haurren eta Nerabeen Konferentzia Sektorialak 2022ko uztailaren 27an hartutako erabakiaren bidez. Eredu horrek migrazioaren arrisku egoera aitortzeko aukera jaso du, horretarako ezartzen diren inguruabarrak gertatzen direnean. Migrazio arriskuaren adierazpenak erantzun plan bat aktibatzea ekarriko du, autonomia-erkidegoetara lekualdatzeko premiak zehaztuko dituena.

XEDAPENAK

Lehena.– Xedea eta helburua.

1.– Hitzarmen honen xedea da migrazio arriskuaren eraginpean dauden eta bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileak babesteko jarduketak koordinatzea, Kanarietako Autonomia Erkidegotik Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatzen direnean, Haurren eta Nerabeen Konferentzia Sektorialak 2022ko irailaren 29an onartutako erantzun plana aplikatuz.

2.– Horretarako, bi autonomia-erkidegoetako administrazio publikoek administrazio jarduketa guztiak egiteko konpromisoa hartu dute, eta, hala badagokio, organo judizialen eta Fiskaltzaren aurreko jarduketak, helmugako autonomia-erkidegoak eta, bereziki, foru aldundiek, erakunde publikoak diren aldetik, goian aipatutako haurren eta nerabeen tutoretza beren gain har dezaten.

Bigarrena.– Kolektibo hartzailea.

1.– Hitzarmen honen hartzaile diren haurrak eta nerabeak bakarrik dauden eta Kanarietako Autonomia Erkidegoko erakunde publikoaren babespean dauden migratzaileak izango dira. Beraz, babesgabezia egoeran daude, eta ez dute beren zaintzaz arduratu daitekeen seniderik, ezta inolako errotzerik ere. Era berean, egoitza harreran hartuta egon behar dute adingabeak babesteko zentroetan edo behin-behinean gaitutako larrialdi tresnaren batean, harrera zentroetako harrera-aurreikuspenak gainditu direlako eta, ondorioz, arreta osoa emateko baliabideak gainditu direlako.

2.– Kanarietako Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak bere babespean dauden eta bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileak beren ezaugarriengatik eta premiengatik helmugako autonomia-erkidegora lekualdatzeko egokiagoak direnak hautatuko ditu, eta helmugako autonomia-erkidegoko erakunde publikoei igorriko dizkie lekualdaketa proposamena eta adingabeen ezaugarri, inguruabar, baldintza eta premia bereziak jasotzen dituzten txostenak.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldera lekualdatzen diren eta bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileak haurrei eta nerabeei oinarritzko arreta integrala emateko baliabideetara sartuko dira. Ikuspegi horretatik, eta jatorrizko autonomia-erkidegoak emandako informazioan oinarrituta, Foru Aldundietako organo eskudunek, proposatutako pertsonen artetik, eta betiere haien interes gorena kontuan hartuta, egokienak direnak edo oinarritzko egoitza harrerako programa orokor batean sartzeko eta artatzeko egokientzat jotzen direnak zehaztuko dituzte.

4.– Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatuko diren eta bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileak guztira hemezortzi (18) izango dira, honela banatuta:

- Lau (4) Arabako Lurralde Historikora.
- Zazpi (7) Bizkaiko Lurralde Historikora.
- Zazpi (7) Gipuzkoako Lurralde Historikora.

Hirugarrena.– Haurren eta nerabeen babes juridikoa.

1.– Espainiako Konstituzioaren 39.4. artikuluan ezarritakoaren arabera, umeen eskubideak zaintzen dituzten nazioarteko akordioetan aurreikusitako babesa izango dute umeek.

2.– Espainiako Estatuak hainbat nazioarteko tresna juridiko sinatu ditu arlo horretan, nahitaez bete beharreko batasuneko arauetz gain. Horien guztien artean, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 3.1 artikulua aipa daiteke, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onartua. Horren arabera,

gizarte ongizateko erakunde publiko nahiz pribatuek, auzitegiek, administrazio agintariak edo legegintza organoek haurren inguruan hartzen dituzten neurri guztiak adingabearen interes gorenaz zaindaturak izango dute lehendabiziko ardura.

3.– Bestalde, ABJLOk, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipioak estatuko legedira ekartzen dituenak, adingabe migratzailearen estatus juridikoari heltzen dio, bertoko pertsonetara tratatu berdintasunean oinarrituta.

4.– Haurren Eskubideen Batzordearen 6 eta 14 zenbakiko lrukin Orokorrek, 2005eko irailaren 1ean eta 2013ko otsailaren 1ean hartuak hurrenez hurren, agerian jartzen dute bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileen egoera bereziki zaurgarria. Horren arabera, adingabearen interes gorenaren kontzeptua konplexua da, eta haren edukia kasuan kasu zehaztu behar da.

5.– Ikuspegi horretatik abiatuta, ABJLOn 2015ean egindako aldaketak printzipio horiek indartu zituen, eta bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileak lehenetsi zituen talde kaltebera gisa, eragin diezaiekeen edozein politika edo neurri kategoriatan horren bidez zehaztu dadin saiatuz. Hala, lege horren 10.3 artikulua Espainian dauden haur eta nerabe atzerritarrei hezkuntzarako, osasun-laguntzarako eta oinarrizko gizarte-zerbitzu eta -prestazioetarako eskubidea aitortzen die, Espainiako haur eta nerabeen baldintza berberetan. Halaber, administrazio publikoari bereziki kalteberak diren taldeak zaintzeko betebeharrak esleitzen die, hala nola bakarrik dauden haur eta nerabe atzerritarrak, nazioarteko babes premiak dituztenak, desgaitasunen bat dutenak eta sexu-abusuen, sexu-esplotazioaren, haur pornografiaren eta giza salerosketaren biktimak direnak, legean xedatutako eskubideak betetzen direla bermatzeko.

6.– Bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileei arreta emateko zirkuitua osorik arautzen da atzerritartasunaren gaineko legedian; zehazki, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan —abenduarren 11ko 2/2009 Legeak emandako idazketan—, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduan, eta bakarrik dauden adingabe atzerritarren gaineko jardura jakin batzuei buruzko esparru protokoloa onartzeko akordioa argitaratzen duen 2014ko urriaren 13ko Ebazpenean.

Laugarrena.– Bakarrik dagoen haur edo nerabe migratzaileak entzuna izateko eskubidea.

1.– Bakarrik dauden haur edo nerabe migratzaileak helmugako autonomia-erkidegora lekualdatzeari buruzko edozein erabaki hartu aurretik, Kanarietako Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak bermatuko du lekualdatuak izan daitezkeen adingabeek entzunak izateko duten eskubidea betetzen dela, baldin eta heldutasun nahikoa badute eta, nolana ere, hamabi urtetik gorakoak badira; ez dira inola ere baztertuko aitortutako desgaitasunen bat duten edo arreta espezializatua behar duten pertsonak.

2.– Bereziki, lekualdaketa buruz duten iritzia eskatuko zaie, eta galdetzen zaienaren eta beren iritzia ondo ondo berri emango zaie, prozeduraren berme guztiak erabat errespetatuta. Horretarako, informazioa hizkuntza argi eta errazean emango zaie, arazorik gabe ulertzeko moduan, formatu irisgarrian eta haien garapen ebolutibora, ulermenera, gainerako inguruabar pertsonaletara eta baldintza berezietara egokituta.

3.– Aurreko xedapenak kontuan hartuta, babes espedienteetan jasota utzi beharko da izapide hori egin dela, bai eta haren edukia, emaitza eta balorazioa ere.

4.– Adingabeak lekualdaketa aurka dagoela adierazten badu, eta erakunde publikoek uste badute lekualdatze hori dela haren interes gorenaz bermatzeko neurri egokiena, defendatzaile judicial bat izendatuko da adingabearen interesak ordezkatzeko, gai horri buruz hartzen den behin betiko erabakiak haren interes legitimo guztiak bermatzen eta errespetatzen dituela ziurtatzeko.

Bosgarrena.– Tutoretza onartzea.

1.– Foru aldundiek, erakunde publikoak diren aldetik, jasotako txostenak aztertuko dituzte, eta tutoretza eta lekualdatzea bere gain hartzea onartu edo ukatuko dute, proposatutako adingabeen premiei behar bezala erantzuteko egoitza baliabide espezifikoak eskuragarri dauden kontuan hartuta, bai eta beste inguruabar batzuk ere, hala nola jatorrizko autonomia-erkidegoan prozedura judizialik ez izatea, senideak izatea, eta abar.

2.– Lekualdatzea egin ondoren, bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaileak Euskal Autonomia Erkidegora iritsi direnean, foru aldundiek babesgabezia egoeraren legezko adierazpena egingo dute, eta tutoretza beren gain hartuko dute lege aginduz. Horren berri emango diote Kanarietako Autonomia Erkidegoko erakunde publikoari, erakunde horrek, era berean, beharrezko ebazpenak eman ditzan, babesgabezia aitortpena eta ezarritako babes neurriak ondorioz gabe uzteko.

Seigarrena.– Lekualdaketa programatzea.

1.– Alde guztiek adierazi dute 18 haur eta nerabe ahalik eta azkarren lekualdatzeko asmoa eta helburu komuna dutela, hitzarmen hau sinatu ondoren eta alderdietako bakoitzak, aplikatzekoa den legeriaren arabera, izapidearen berariazko prozedura bete ondoren.

2.– Aurrekoa alde batera utzi gabe, lekualdaketa egingo da baldin eta foru aldundiek egoitza baliabideak edo familia harrerarako baliabideak badituzte.

3.– Lekualdaketak administrazio publikoek adostutako moduan egingo dira. Nolanahi ere, Kanarietako Autonomia Erkidegoaren ardura da adingabeak eta horiekin batera doazen langileak lekualdatzearen ziozko gastu guztiak ordaintzea, jatorrizko larrialdi baliabideetatik Foru Aldundietako bakoitzak adierazten dituen baliabideetarako bidaietan.

Zazpigarrena.– Babeserako administrazio espedienteak igortzea.

1.– Kanarietako Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak, erakunde publikoa den aldetik, babeserako espediente bakoitzaren kopia osoa helaraziko die foru aldundiei, eta jatorrizko dokumentazioa gordeko du, salbu eta jatorrizko dokumentuak foru aldundiek hartu beharreko babes neurriak behar bezala gauzatzeko beharrezkoak badira; kasu horretan, jatorrizko dokumentu horiek ere igorriko dira.

2.– Aurrekoaren ondorioetarako, babes neurriak behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren jatorrizko dokumentuz hartuko dira bakarrik dauden eta Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatuko diren adingabe migratzaileen nortasuna egiaztatzen duten dokumentuak, edozein motatakoak (behin-behinean emandako dokumentazioa barne); beharrezkoa izango da foru aldundiek dokumentu horiek edukitzea haurren edo nerabeen legezko tutoretza beren gain hartu aurretik.

3.– Nolanahi ere, babeserako espedienteak trukatzeko eta, hala badagokio, espediente horietako dokumentazioa trukatzeko honako hauetan horretarako jasotako xedapenek arautuko dituzte: Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onartzen duen martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretua, eta arlo horrekin bat datozen eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak; eta, hala badagokio, xedapen horiek betetzeko ezarri diren baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoaren arabera.

Zortzigarrena.– Datuen babesa.

1.– Hitzarmen hau betetzetik sortzen diren datu pertsonalak alderdi sinatzaileen ardurapeko datu fitxategietan sartuko dira. Datuen titularrek datuak ikusteko, zuzentzeko eta baliogabetzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte.

2.- Aldeek konpromisoa hartzen dute datu horiek honako hauetan xedatutakoaren arabera tratatzeko: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datua Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko. Halaber, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritako guztia errespetatuko da.

Bederatzigarrena.– Ondorioak.

1.- Hitzarmen honen arabera alderdietako bakoitzak bere gain hartutako konpromisoak eta betebeharrak betetzeko, autonomia-erkidegoek adingabeak babesteko duten eskumenari dagozkion eginkizun publikoak gauzatu beharko dituzte, Konstituzioan eta estatutuetan ezarritako arauen babesean.

2.- Era berean, hitzarmen honetako lankidetzaren harremanak erakundeen leialtasunaren eta lurraldeen arteko elkartasunaren printzipioetan oinarritzen dira.

3.- Beraz, ez da ondorioz xedatzen hitzarmen honetatik eratorritako konpromisoak eta betebeharrak betetzen ez badira.

Hamargarrena.– Jarraipena.

Hitzarmen honetan jasotako jarduketak eraginkortasunez egiteko eta, ondoren, jarduketan jarraipena eta kontrola egiteko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori jatorrizko eta helmugako autonomia-erkidegoetako erakunde publikoek eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak osatuko dute.

Hamaikagarrena.– Eskumena.

1.- Kanarietako Autonomia Estatutuaren 144. artikulua, azaroaren 5eko 1/2018 Lege Organikoaren bidez erreformatu ondoren, Autonomia Erkidegoari ematen dio, immigrazioaren arloan, gai horren gainean Estatuari konstituzio bidez dagozkion eskumenak kaltetu gabe, honako hauek egiteko eskumen eskusiboa: erkidegokoak ez diren immigratzaileen gaineko arreta soziosanitarioa eta orientazioa emateko, bere eskumenen barruan immigratzaileen integrazio politika garatzeko, immigratzaileak gizarteratu eta ekonomikoki integartzeko beharrezko neurriak hartzeko, beren eskubideak eta betebeharrak betetzen direla bermatzeko, eta estatuko araudiaren arabera immigratzaileen (baita bakarrik dauden adingabe migratzaileen) harrera eta integrazioarako erreferentziatzeko esparrua ezartzeko.

2.- Era berean, Estatutu horren 147. artikulua adingabeen babesaren gaineko eskumen eskusiboa esleitzen dio, eta, horren barruan sartzen dira, nolahi ere, babesik gabe edo arrisku egoeran dauden adingabeak nahiz adingabe arau-hausleak babestu eta zaintzeko erakunde publikoen eta babes araubidearen arauak, legedia zibilean eta penalean ezartzen dena kaltetu gabe, bai eta familiak eta haurrak sustatzeko eskumen eskusiboa ere, horren barruan sartzen direlarik, nolahi ere, gizarte babeseko neurriak eta horien betearazpena.

3.- Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoak, Autonomia Estatutuaren (abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutakoaren) 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskumen eskusiboak ditu gizarte laguntzan (10.12. artikulua), adingabeak babestu eta zaintzeko erakunde eta establezimenduen, espetxeen nahiz berriz gizarteratzeko zentron antolatketan, araubidean eta funtzionamenduan, gai zibilean nahiz zigor eta espetxeen arloko legedia orokorraren arabera (10.14. artikulua), bai eta erkidegoaren garapenean, emakume izatean eta haur eta gazteen politikan ere (10.39. artikulua).

Hamabigarrena.– Sektore publikoaren araubide juridikoa. Administrazio publikoen arteko lankidetzeta.

1.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak, «Administrazioen arteko harremanak» izenburupean, administrazio publiko desberdinen arteko harremanek bete behar dituzten printzipio batzuk ezartzen ditu, 140. artikuluan.

2.– Zehazki, honako hauek ezartzen ditu: elkarlanean aritzea, hau da, gainerako administrazio publikoekin batera jardutea xede komunak lortzeko; baliabide publikoen kudeaketaren efizientzia; bermea eta berdintasuna herritar guztiek administrazioekiko harremanetan eskubideak baliatzean, eta lurraldeen arteko elkartasuna, Konstituzioaren arabera.

3.– Bestalde, 141. artikulua, elkarlanaren printzipioari buruzkoak, funtsezkotzat jotzen du beste administrazio batzuek beren eskumenak eraginkortasunez betetzeko eska dezaketen laguntza ematea, zeinak bere eremuan.

4.– Azkenik, 143. artikulua, administrazio publikoen arteko lankidetzeta gauzatzeko, alderdiek onarpen espresua eman beharko dute lankidetzeta organoen akordioetan edo hitzarmenetan.

Hamahirugarrena.– Indarraldia.

Hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen den egunetik harik eta Kanarietako Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatu diren eta bakarrik dauden haur eta nerabe migratzaile guztien aldeko babesgabezia adierazpenak eta babes neurriak baliogabetzen dituzten ebazpenak eman arte. Hori foru aldundiek, horretarako eskumena duten erakunde publikoak diren aldetik, adingabeen tutoretza beren gain hartu ondoren egin beharko da.

Eta, goian azaldutako eta xedatutako guztiarekin ados daudela adierazteko, alde guztiek hitzarmen hau sinatu dute, elektronikoki. Hala, aldean azken sinaduraren datan, sinatutzat joko da protokoloa.

**KANARIETAKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN IZENEAN,
GIZARTE ONGIZATEA, BERDINTASUNA,
GAZTERIA, HAURRAK ETA FAMILIETAKO
SAILBURUA,**

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN IZENEAN,
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILBURUA,**

Candelaria Delgado Toledo

Nerea Melgosa Vega

**ARABAKO FORU
ALDUNDIAREN IZENEAN,
GIZARTE POLITIKEN
SAILEKO FORU DIPUTATUA**

**BIZKAIKO FORU
ALDUNDIAREN IZENEAN,
GIZARTE EKINTZAKO FORU
DIPUTATUA**

**GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIAREN IZENEAN,
ZAINKETETAKO ETA
GIZARTE POLITIKETAKO
DEPARTAMENTUKO FORU
DIPUTATUA**



**Gobierno
de Canarias**

Consejería de Derechos Sociales,
Igualdad, Diversidad y Juventud



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

Gorka Urtaran Agirre

Amaia Antxustegi Ziarda

Maite Peña López